



MIGRAZIO
ETA ASILO
EUSKAL
FOROA

FORO
VASCO
DE MIGRACIÓN
Y ASILO



Etorkinentzako sarbidea Euskadiko osasun sisteman



Atzerritarra naiz. Osasun-laguntza publikoa jaso dezaket?

Bai, Euskadiko udalerri batean erroldatuta bazaude, **Osasun Txartel Indibiduala (OTI)** eskatu behar duzu, eta horrekin osasun-laguntza jasotzeko eskubidea duzu, gainerako biztanleen baldintza berberetan



Eta erroldatuta ez banago?

Bai, nahiz eta Euskadiko udalerri batean erroldatuta ez egon, errolda-ziurtagiria ez baita benetako bizilekua egiaztatzeko bide bakarra. Zure egoera 1/2023 Instrukzioko kasuren batean agertzen bada, benetako bizilekuari buruzkoa.

BAI, EAEko elkartearen erregistroan inskribatutako GKEen txostena baduzu, **Aldi Baterako Osasun-laguntzaren Dokumentua (DAST)** eskatu behar duzu.



Atzerritarra naiz eta aldi baterako egonaldi-baimena daukat (iraungi gabeko bisa daukat edo ez dira 90 egun igaro Espainian sartu nintzenetik), osasun-laguntza publikoa jaso dezaket?

Bai, baldin eta:

- Oinarrizko gizarte-zerbitzuen aldeko txostena izatea. 7/2018 Legegintzako Errege Dekretuaren 3 ter. 3)
- Haurdun eta/edo adingabea bazara eta aseguru mediko pribaturik (bidaiakoa edo beste edozein) edo publikorik (Europako Osasun Txartela, adibidez) ez baduzu.
- ✔ Aurreko bi aukeretako edozein gertatzen denean, **osasun-laguntza publikorako eskubidea duzu.**
- ⊗ Aukera horietako bat ere ez badago, **osasun-laguntza jaso ahal izango duzu, baina ez da funts publikoen kontura izango.**



Nazioarteko Babesa eskatzen badut, osasun-laguntza publikoa jaso dezaket?

Bai, baldin eta hauetako dokumentu bat aurkezten baduzu:

- Txartel Gorria edo **Nazioarteko Babesa aurkeztu izanaren frogagiria edo Borondate Adierazpena.**
- Txartel Berdea edo **Apatridia Estatutua aurkeztu izanaren frogagiria edo Borondate Adierazpena.**
- **Aldi baterako babesa edo borondate-agiria aurkeztu izanaren gordekina.**



Gainerako pertsonak dituzten eskubide berak al ditut Euskadiko osasun-sisteman sartzeko? Eta beste autonomia-erkidego batetik banator edo beste erkidego batera noa?

Bai, **gainerako pertsonen eskubide berak dituzu.** Beste erkidego batetik bazatoz, lekuz aldatutako pertsonatzat hartuko zaituzte.

Osasun-laguntza publikorako eskubidea lortzea



Non eskatu dezaket osasun-laguntza publikoa aitortu diezadaten?

Zure etxetik hurbilen dagoen **Osakidetza osasun-zentroan.**



Medikua aukeratzeko eskubidea daukat?

Bai. **Osasun-zentroan medikuei buruzko informazioa emango dizute, zuk aukera dezazun,** lehen mailako arretan. Aukeratutako profesionalak kupo osoa badu, beste profesional bat esleituko zaio.



Nire egoera berean dauden seme-alaba adingabeak badituzte, ba al dute osasun-laguntza publikorako eskubiderik?

Bai. Gainera, haurrentzako eta **gazteentzako osasun-programa espezifikoak daude:** haur osasuntsuen kontrola eta jarraipena, txertaketa-egutegia, aho-hortzen osasuna...



Botikak behar badituzte, ordaindu egin behar dituzte?

Bai, **prezioaren % 40 ordaindu beharko duzu, egoitza-baimena izan ezean;** kasu horretan, zure ekarpena zure errenta-mailaren arabera izango da.

GOGORATU

Lasai joan zaitezke zure osasun-zentrora edo Osakidetzako larrialdi-zerbitzura, osasun-arretaren laguntza behar izan ezker. Beti hartuko zaituzte. Ezin baduzu zure kabuz joan, deitu 112 telefonora.

Osasun-laguntza publikorako eskubidearen eskaera formalizatuta ez baduzu, egin ezazu zure etxetik hurbilen dagoen Osakidetzako osasun-zentroan.

Zure datu pertsonalak eta osasunari buruzkoak isilpekoak dira. Artatzen zaituzten osasun-langileek bakarrik ezagutuko dituzte.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

ONGIZATE, GAZTERIA ETA
ERRONKA DEMOGRAFIKOAREN SAILA
OSASUN SAILA



MIGRAZIORAKO
EUSKAL
ITUN SOZIALA
PACTO SOCIAL
VASCO PARA
LA MIGRACIÓN